

Helburuak 2008

2007a amaitu berri da. Euskara Planen baitan 2007ko helburuak eta ekintzak ebaluatu ditugu eta baita 2008rakoak adostu ere. Buruntzaldean euskara plana duten enpresa batzuetakoen berri eman nahi dizuegu.

<p><u>Fagor Automation Usurbil -Beriola</u></p> <p>- Ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none">. Lanpostu Estrategikoetan formazioa eskaini. <p>- Erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none">. Formazioa euskaraz bultzatu.. Bileretan euskara sustatu.. Batzar Orokorrean euskararen erabilera areagotu. <p>- Motibazioa:</p> <ul style="list-style-type: none">. Ahozko erabilera informala areagotu. <p>- Instituzionalizazioa:</p> <ul style="list-style-type: none">. Hizkuntza Politika landu.	<p><u>Hator</u></p> <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Trebakuntza saioak. Mintza taldea
	<p><u>S. Izagirre</u></p> <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Langileen trebakuntzan sakondu. <p>- Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none">. Langileen parte hartzea euskara planean handitu, motibazioa eta komunikazioa landuz.
<p><u>Fagor V. Luzuriaga Usurbil</u></p> <p>- Ezagutza:</p> <ul style="list-style-type: none">. Euskaldunak identifikatu eta datuak zabaldu erabileran eragin dezaten. <p>- Erabilera:</p> <ul style="list-style-type: none">. Lan zirkuluak euskaraz bideratzeko aukerak aztertu eta proposamenak bideratu.. Bileretan neurri berriak hartu eta jarraipena egin. <p>- Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none">. Zuzendaritzarentzat eta Kontseilu Sozialarentzako motibazio saioa antolatu. Gaia: nola izan gaitezke erudugarri?. Pertsonalekoak euskara planean lan egiteko trebatu (Telp tailerra).. Lan taldeetako kideak trebatu (Telp tailerra).	<p><u>Latz</u></p> <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Euskaldunen trebakuntzan sakondu. <p>- Erabilera</p> <ul style="list-style-type: none">. Hizkuntza irizpideak aplikatu eta enpresan errotu. <p>- Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none">. Langileen parte hartzea euskara planean handitu, planari eusteko beharraz jabetu eta kontzientziatu.
	<p><u>Mondragon Sistemas de Información</u></p> <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Arduradunei aholkularitza eta laguntza tekniko eman.. Planaren inguruko komunikazioa ziurtatu.. Langileei zalantzak argitzeko laguntza pertsonalizatua eta zuzenketak eskaini.
<p><u>Tximela</u></p> <p>- Erabilera</p> <ul style="list-style-type: none">. Barne buletina argitaratu <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Trebakuntza saioak. Euskara eskolak	<p><u>Selak</u></p> <p>- Ezagutza</p> <ul style="list-style-type: none">. Euskara eskolak antolatu. <p>- Erabilera</p> <ul style="list-style-type: none">. Hizkuntza irizpideak enpresan errotu. <p>- Motibazioa</p> <ul style="list-style-type: none">. Erdaldunak euskara planean inplikatu.

Motzean

Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren 2008ko diru laguntza deialdia.

- **Deialdia.** [Klikatu hemen.](#)
- **Diru kopurua.** Entitate pribatuek eta zuzenbide publikoko korporazioek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten lantokietan euskararen erabilera-planak egin edota 2008an garatzeko diru laguntza (LanHitz). 2.690.000 euro. Diru kopuru horren baitatik, 150.000,00 euro urte anitzeko lehen euskara planaren diseinua diru-laguntza gaiari zuzenduko zaizkio. Diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko, jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri. Emango diren diru laguntzen gehieneko zenbatekoa % 60koa izango da aurrekontu araziaren (HPSk onartutakoa) gainean.
- **Epeak.** Euskara planak inplementatzen dauden erakundeek otsailaren 15era arte dute diru laguntzak eskatzeko epea. Diseinuen kasuan, urriaren 15era arte.
- **Zer laguntzen dute.** Euskara planaren lehen diseinua eta kudeaketa planen garapena.

Zer da...?

Euskara planeko koordinatzailea

Lana euskaraz!



- Harremanetarako lehenengo pertsona koordinatzailea da. Bitartekari lana egingo du bere enpresa eta aholkularitza enpresaren artean.
- Bera da planaren atzetik dagoen arduradun nagusia eta, hala behar izanez gero, erabaki organoen eta Euskara Batzordearen artean bitartekari lanak egingo ditu.
- Diseinuan behar den informazioa eskuratzen lagunduko du, Euskara Batzordearen laguntzarekin.
- Euskara planari buruzko ezagutza handia izan behar du eta planaren helburu nagusia eta norabidea zein den garbi izan behar du.
- Planaren inplementazioaldian, euskara teknikariarekin harreman estua izan behar du eta zailtasunak eta trabak gaintzen lagundu behar dio euskara teknikariari.